



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko otsailaren 10a

8. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Osasun Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Turismoa Sustatzeko Nafarroako Agentziaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Nafarroako Etika Batzordearen egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Gizarte Segurantzako nekazaritza-araubidean afiliatuta dauden emakumeei laguntzak emate aldera Nafarroako Gobernuak baliatu duen kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, nekazaritzako ustiategiak modernizatzeko laguntzak finantzatze aldera Nafarroako Gobernuak baliatu duen kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Gobernuko eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, mihi urdinaren gaitzeko 1. eta 8. serotipoei dagokienez hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Sasi Ardi eta Pottoka arrazak Nafarroako arraza autoktonoen barruan sartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer egin duen musulmanei ziurtatze aldera hildakoak erritu islamiarraren arabera lurperatu ahal izatea. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

—Galdera, Osasun Departamentuak eremu euskaldunean bizi direnei jakinarazpenak euskaraz ere bidaltzeari buruzkoa eta komunikazio idatzietan hizkera ez sexista erabiltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroari adierazitako gomendioen jarraipenari buruzko txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (11. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Osasun Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Osasun Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 14ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aman-

da Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Osasun Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruz (PES-562/10). Hona Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Osasun Departamentuan, eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan nahiz Laneko Osasunaren Institutuan –biok erakunde autonomoak dira–, ez du zerbitzurik ematen Administrazioaren enpresa publikoren batekoa den inongo langilek.

Hori jakinarazten dut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko uztailaren 2an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna,

Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 14ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Amanda Acedo Suberviola andreak galdera bat (PES-565) aurkeztu zuen 2010eko ekainaren 1ean, Legebiltzarreko erregistroan. Hona erantzuna:

1.- Departamentuan, bi fundazio publikoren mendekoak diren zazpi langilek dute kokaleku fisikoa.

- Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa.

- Ikus-entzunezko Arteen eta Zinematografiaren Nafarroako Institutua.

2.- Langileon esku jartzen diren bitarteko materialak dira, bi kasuetan, lokalak eta ahots- nahiz datu-konexioak.

Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioko langileek fundazioarenak diren altzariak eta ekipamendua erabiltzen dituzte.

Ikus-entzunezko Arteen eta Zinematografiaren Nafarroako Institutua fundazioko langileek departamentuarenak diren altzariak eta ekipamendua erabiltzen dituzte.

Bi kasuetan, material suntsigarria fundazioaren kontu da.

3. Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioko langileek, orokorrean, ez diete zuzeneko zerbitzurik ematen herritarrei, eta egiten duten lana da fundazioaren patronatuak –gobernu-organo gorena– onetsitako helburu fundazionalak betetzeko beharrezkoa gertatzen dena.

Ikus-entzunezko Arteen eta Zinematografiaren Nafarroako Institutua fundazioko langileek bai ematen diete zuzeneko zerbitzua herritarrei, laguntza deialdietan, zinemaldiekiko lankidetzan ildoetan, produktoreekin, film commission batek berezkoak dituen eginkizunetan eta fundazioaren patronatuak –gobernu-organo gorena– onetsitako helburu fundazionalak betetzeko beharrezkoak diren guztietan.

4. Hauek dira lanpostuak:

- Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa.

1 zuzendari-kudeatzaile

1 administrari

- Ikus-entzunezko Arteen eta Zinematografiaren Nafarroako Institutua.

1 zuzendari kudeatzaile

1 zuzendariorde

1 goi mailako teknikari, Navarra Film Commission-i atxikia

1 administrari

1 bekadun

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko uztailaren 5ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Turismoa Sustatzeko Nafarroako Agentziaren egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Turismoa Sustatzeko Nafarroako Agentziaren egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 14ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Turismoa Sustatzeko Nafarroako Agentziaren egoerari buruz (PES-575). Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuaren turismoaren sustapen eta marketin arloko eskumenak kudeatzeko sozietate publiko bat sortzeko proiektuari buruz adierazi behar dizut proiektu hori, legegintzaldi honetarako aurreikusi zena, geldirik dagoela.

2007an eta 2008an egoeraren diagnosia egin zen. Gisa horretako egitura batek kudeaketa publikoari begira zituen aukerak, mehatxuak, indarguneak eta ahulguneak aztertu ziren. Orobat aztertu ziren beste autonomia erkidego batzuetako kudeaketa-tipologiak eta beste herrialde batzuetako esperientziak.

2009an, eta krisi ekonomikoa zela-eta, proiektua gelditzea erabaki zen.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko uztailaren 5ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 14ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Departamentuan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpeko enpresa publikoetako eta erakundeetako langileak egoteari buruz (PES 564/10). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuaren barruan Familia, Haurtzaro eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiko Kontsumo Zer-

bitzuak bakarrik du enpresa publiko bateko langileen laguntza.

Zehazki, zuzendaritza nagusi horrek Trabajos Catastrales, S.A.ri (TRACASA) emandako gomendio baten kariatara, zerbitzu horrek ondoko profesionalen laguntza du:

- 1 Kontsumoko goi teknikaria (LH)
- 2 teknikari, zuzenbideko lizentziadunen pres-takuntzarekin

- 3 administrari laguntzaile

Emandako gomendioaren xedea da –langile horiek horretan ari dira lanean– Kontsumitzaileen informazio gunearen euskarri teknikoaren eta administratiboaren kudeaketa eta Kontsumo Ataleko salaketa eta zehapen espedienteak izapidetzea.

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Nafarroako Etika Batzordearen egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Etika Batzordearen egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 14ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Etika Batzordearen egoerari buruz (PES 571-10). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeko 46. artikuluan xedatzen da Nafarroako Gizarte Laguntzaren Etika Batzordearen osaera eta eginkizunak erregelamendu bidez ezarriko direla.

Legezko betebeharrak hori betetzeko xedez, Nafarroako Gobernuak, ekainaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Nafarroako Gizarte Laguntzaren Etika Batzordea nahiz arloetako edo zentroetako etika batzordeak arautzen dituen Foru Dekretuaren proiektua, Nafarroako Kontseiluari bere nahitaezko irizpena eman dezan eskatzearen ondorioetarako.

Erakunde horrek kasuko irizpena ematen duenean, eta horri jarraikiz, aipatu foru dekretua behin betikoz onetsi ahalko da.

Iruñean, 2010eko uztailaren 1ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Gizarte Segurantzako nekazaritza-araubidean afiliatuta dauden emakumeei laguntzak emate aldera Nafarroako Gobernuak baliatu duen kontusailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Gizarte Segurantzako nekazaritza-araubidean afiliatuta dauden emakumeei laguntzak emate aldera Nafarroako Gobernuak baliatu duen kontusailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko kaineraren 25eko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin

du Gizarte Segurantzako nekazaritza-araubidean afiliatuta dauden emakumeei laguntzak emate aldera Nafarroako Gobernuak baliatu duen kontusailari buruz (PES-585). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

2010eko deialdian sortutako ordainketa-eskubi-deak 2011n ordainduko dira, eta kontusail honen kargura: 71230 710001 4700 414211 "Gizarte Segurantzako kuotetarako hobariak". Kontusail hori ez bada, horren baliokidea izanen den beste bat gaitu eta haren kargura ordainduko dira.

Hori jakinarazten dut Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, nekazaritzako ustiategiak modernizatzeko laguntzak finantzatze aldera Nafarroako Gobernuak baliatu duen kontusailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du nekazaritzako ustiategiak modernizatzeko laguntzak finantzatze aldera Nafarroako Gobernuak baliatu duen kontusailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 25eko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du nekazaritzako ustiategiak modernizatzeko laguntzak finantzatze aldera Nafarroako Gobernuak baliatu duen kontusailari buruz (PES-587). Horri buruz adierazi behar dizut baliatutako kontusaila ondokoa izan zela: 72230-721002-7700-412100 "Nekazaritza-ustiategien eraginkortasuna hobetzea. PDR FEADER."

Hori jakinarazten dut Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko uztailaren 2an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Gobernuko eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Gobernuko eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 14ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aman-

da Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Gobernuko eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuan Administrazioak herritarrei ematen dizkien zerbitzu publikoetako langileen eta baliabideen kudeaketari buruz. Hona Gobernuko eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako eta Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

Gobernuko eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuak ez dauka bere langileen artean Nafarroako Foru Administrazioaren menpeko enpresa publikoei edo erakundeei atxikitako langilerik.

Iruñean, 2010eko uztailaren 28an

Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, mihi urdinaren gaitzeko 1. eta 8. serotipoei dagokienez hartutako neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du mihi urdinaren gaitzeko 1. eta 8. serotipoei dagokienez hartutako neurriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 25eko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du mihi urdinaren gaitzaren 1. eta 8. serotipoei dagokienez hartutako neurriei buruz (PES-582).

Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Mihi urdina edo ardien sukar katarrala gaixotasun bat da jasota dagoena bai Animalien Osasunaren Munduko Erakundearen (OIE) Nazioarteko Kode Zoosanitarioan, bai derrigorrez aitortu beharreko eritasunen Europar Batasunaren A zerrendan. Gaixotasunari aurre egiteko berariazko neurriak azaroaren 8ko 1228/2001 Errege Dekretuan daude araututa, hau da, Ardien sukar katarralari edo mihi urdinari aurre egiteko eta hori desagerrazteko berariazko neurriak ezartzen dituen Errege Dekretuan.

Urriaren 27ko ARM/3054/2008 Aginduak –mihi urdina dela-eta babeserako berariazko neurriak ezartzen ditu– aipatutako errege dekretua gartzten du, ezarritako diren gune libreak eta murriztuak, animaliak mugitzeko baldintzak eta txertatze-irizpideak. Departamentuak kanpaina honetan

aplikatu dituen neurriak, funtsean, 2009ko kanpainaren luzapena dira, eta araudi nazionala betetzen dute. Azpimarragarriena, azienda guztia txertatzea 1 eta 8 serotipoen kontra, eta, gainera, tranpa-sareari eustea ebaluatzeko ba ote dagoen bektorerik Nafarroako leku desberdinetan.

Nafarroan, egoera honakoa da:

1. Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioak deklaratu duenez, 2010eko maiatzaren 14tik Espainian amaituta dago mihi urdinaren birusaren bektorerik gabeko urtaroa; estatus hori aurreko negutik zegoen ezarrita.

2. Osasun egoera normala da: gaixotasunak animalia gutxiri egin dio kalte, eta txertoen aurkako erreakzioak ere gutxi izan dira.

3. Mihi urdinaren aurkako txertatze-kanpaina normaltasunez ari da gauzatzen, eta, ekainaren 24ra bitarte, behi-ustiategien % 66 eta ardi/ahuntz-ustiategien % 60 txertatuta zeuden.

Hori jakinarazten dut Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko uztailaren 26an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Sasi Ardi eta Pottoka arrazak Nafarroako arraza autoktonoen barruan sartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Sasi Ardi eta Pottoka arrazak Nafarroako arraza autoktonoen barruan sartzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko uztailaren 2ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak gal-

dera egin du Sasi Ardi eta Pottoka arrazak Nafarroako arraza autoktonoen barruan sartzeari buruz (PES-589). Hona Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Sasi Ardi arraza 2007tik aitzina dago arraza autoktono gisa aitortua. Pottokari dagokionez, aurretiazko azterketa zooteknikoaren fasean gaude oraindik, eta, hortaz, une honetan ez dago animalia horiek arraza autoktono gisa sailkatzeari buruzko ez jarrera zehazturik ez egutegirik ere.

Hori jakinarazten dut Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko uztailaren 26an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer egin duen musulmanei ziurtatze aldera hildakoak erritu islamiarraren arabera lurperatu ahal izatea.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Samuel Caro Sádaba jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak zer egin duen musulmanei ziurtatze aldera hildakoak erritu islamiarraren arabera lurperatu ahal izatea.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 25eko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Samuel Caro Sádaba jaunak galdera egin du (PES-584/10) herritar musulmanei beren ahaideak erritu islamiarraren arabera lurperatu ahal izatea bermatzeko urratsei buruz:

Hileta-osasuna da Osasun Departamentuak hilerrien arloan duen eskumen bakarra; ez du batere zerikusirik erlijio desberdinek ehorzketarako dituzten erritu edo ohiturekin.

Hilerrien kudeaketa udal-eskumenekoa da.

Iruñean, 2010eko uztailaren 27an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Osasun Departamentuak eremu euskaldunean bizi direnei jakinarazpenak euskaraz ere bidaltzeari buruzkoa eta komunikazio idatzietan hizkera ez sexista erabiltzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Asun Fernández de Garaialde y Lazkano galdera egin du Osasun Departamentuak eremu euskaldunean bizi direnei jakinarazpenak euskaraz ere bidaltzeari buruz eta komunikazio idatzietan hizkera ez sexista erabiltzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko ekainaren 25eko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko uztailaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako Asun Fernández de Garaialde andreak galdera

egin du eremu euskalduneko erabiltzaileek jakinarazpenak euskaraz jasotzeari buruz (PES-586/10). Hona hemen horri buruzko informazioa:

Osasun Departamentua ari da beharrezko neurriak ezartzen bete dadin Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen Dekretua.

Hizkera ez sexistari dagokionez, genero gramatikal maskulinoko substantiboak erabiltzen diren kasuetan ulertuko da adierazpidearen ekonomia hutsez aipatzen direla horrela, eta modu orokorrean aipatu nahi direla postu horiek, gizonen betetzen dituztenerako nahiz emakumeek betetzen dituztenerako, eragin juridiko berdinekin.

Iruñean, 2010eko uztailaren 27an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroari adierazitako gomendioen jarraipenari buruzko txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 2an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroari adierazitako gomendioen jarraipenari buruz egindako txostena, 2010eko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2010eko azaroaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroari adierazitako gomendioen jarraipenari buruzko txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (11. or.).
- II. Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroa (11. or.).
- III. Helburua eta norainokoa (13. or.).
- IV. Ondorioak (13. or.).
1. eranskina Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroari igorritako galdetegia (15. or.).
2. eranskina CTSNren gainean erakunde batzuek eginiko azterketa edo/eta auditoriak (22. or.).

I. SARRERA

2009ko martxoaren 2an, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eskatuta, erabaki zuen Comptos Ganberari honakoa eskatzea:

“Urteko txosten bat egin dezan, bost urtez jarraian, erakunde horrek Nafarroako Odol-transfusioen eta Zelulen eta Ehunen Zentroari buruz egi-

niko fiskalizazio-txostenean jasotako gomendioen jarraipena egite aldera”

Eskari hori betetzeko, ganbera honen 2010eko jarduketa-programan sartu dugu txosten bat egitea aipatutako zentroari buruzko fiskalizazio txostenean jasotako gomendioen betetze-mailari buruz. Txosten hura 2008ko azaroan argitaratu zuen ganbera honek.

Azterketa lana 2010eko maiatzetik ekainera egin du auditoriako bi teknikarik eta auditore batek osatutako taldeak. Halere, 2010eko urrira arteko informazioa jaso da. Era berean, Comptos Ganberaren zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboen laguntza izan dugu.

Txostena lau epigrafetan dago banatuta, sarre-ra hau barne. Bigarrenean, zentroaren alderdi garrantzitsuenen eta ganbera honek 2008an egindako fiskalizazio txostenaren emaitza orokorren gaineko laburpen bat egiten da; hirugarrenean, lanaren helburuak eta norainokoa azaltzen dira; azkenik, laugarren epigrafeak azaltzen ditu lortutako ondorio orokorrak.

Txosten honi bi eranskin gehitu dizkiogu: bata Comptos Ganberak zentro horri igorritako galdetegia da, eta bestea, berriz, entitate batzuek zentroari buruz eginiko ikuskapen edo/eta auditoria jardueren laburpen bat.

Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. NAFARROAKO ODOL TRANSFUSIORAKO ZENTROA

Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroa Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren egituran sartutako laguntza-zerbitzu bat da, eta foru erkidegoaren transfusio-zentroa da. Iruñean dagoen zerbitzu zentralak eta Tuterako hemoterapiako unitateak osatzen dute. Halaber, unitate mugikor

bat ere badu (autohemoteka), Nafarroako herrietan bizi direnen odola emateko eskaintzari bertatik bertara erantzuteko.

Lehenago Nafarroako Odol Bankua izenez ezagutzen zen, eta 1947an hasi zen lanean, Nafarroako Osasun Institutuaren Hematologia eta Hemoterapia Atal gisa.

Gaur egun, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari dago atxikia eta Laguntza Espezializatuaren Zuzendaritzaren menpean dago. Ikuspuntu funtzionaletik, berriz, Kudeaketa Zuzendaritzaren menpean dago.

Egoitza zentrala Nafarroako Ospitaleguneko lurretan dago.

Zentroaren jarduera nagusiaren ardatza odola da; izan ere, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruko ospitale-zentro publiko eta pribatuentzako odol-produktuen horniduraz arduratzen da. Era berean, behar hainbat plasma fresko sortzeaz arduratzen da, jatorri industrialeko hemoderibatu plasmatikoen eskaerari erantzuteko Osasunbidearen mendeko zentroetan. Halaber, hezur-muin emaileen erregistroa kudeatzen du.

2008ko azaroan, ganbera honek zentro horri buruzko fiskalizazio txosten bat egin zuen –2006ko eta 2007ko ekitaldia–, eta hartan, honako ondorioak atera zituen:

“1. Odol-ematearen eta CTSNren kudeaketari eta funtzionamenduari dagokionez, CTSNk Foru Komunitateko odolaren eta produktu hemoderibatuen premiak betetzen ditu. Borondatezko eta doako odol-emateak ongi funtzionatzen du eta, horri esker, Nafarroak odola eta produktu hemoderibatuak esportatzen ditu beste autonomia-erkidego batzuetako ospitaleetara. Historikoki, odol-emateen rankingeko aurreneko postuetan dago Espainian, 1.000 biztanleko.

Bestalde, CTNSk 2006an ISO ziurtagiria lortu du, eta 2007an CAT ziurtagiria, Transfusioen Ziurtapen Batzordeak emana. HLA eta Biologia Molekularraren Laborategiak, 2001. urtea ezker, EFI edo “European Federation for Immunogenetics” erakundearen akreditazioa lortzen du.

Dena dela, Foru Administrazioak eta CTSNk lehenbailehen egin beharrekoak dira hauek:

1.1. Nafarroako urte anitzeko Hemoterapia Plan bat onartzea eta garatzea, ebaluatu eta neurtutako premia errealei erantzuten diena, urteroko lehentasunak, helburu orokor eta espezifikoak, eta adierazleak finkatzen dituen, aurreikusitako baliabideak esleitzen dituen, eta plan hori gauzatzeko,

jarraitzeko eta ebaluatzeko epeak eta prozedurak ezartzen dituen.

1.2. Beharrezkoak diren neurriak hartzea zentro horretako langileen egoera eta lan-giroa hobetze aldera. Denbora-tarte horretan, langileen txandakate, absentismo eta aldi baterako kontratazio maila handia izan da, eta hori murriztea behar-beharrezkoa litzateke; horrez gain, informazioa eta komunikazioa sustatu beharko lirateke, bai eta langileen aldetik kalitatearekiko konpromisoa ere.

1.3. Bitartekoak eta prozedurak hobetzea odolaren eta produktu hemoderibatuen stockak gomendatutako segurtasun-minimoen gainetik daudela kontrolatu ahal izateko denbora errealean eta behar bezala, une oro ospitaleen premiak estalita daudela bermatzeko.

1.4. CTSNren informazio- eta kudeaketa-sistema integrala garatzea eta praktika operatiboan jartzeta, horren barruan sartuz Nafarroako hemoterapia-sareko zerbitzu eta erakunde guztien arteko prozesu eta harreman guztiak.

2. Nafarroan ez dago zerbitzu publikorik zelulen eta ehunen alorreko jarduerak eta prozesuak zentralizatzen eta koordinatzen dituenik. Alde horretatik, Osasunbideak premiak agertu ahala asetzea aukeratu du, ospitaleei administrazio-baimenak emanaz eta erreferentziazko entitateekin edo zentroekin hitzarmenak eginez, jarduera zehatzak egin ahal izateko. Gure iritziz, odol-emateari eta transfusioei buruzko planarekin batera zelulei eta ehunei buruzkoa ere prestatzeko aukera aztertu behar da, jarduera- eta koordinazio-esparru argi bat izateko epe ertain eta luzera, Osasunbideko plan estrategikoen barruan.

3. Foru Administrazioak martxan jarri behar du eskualde-plan bat, Hemoterapia Sarearen eta zelulen eta ehunen zentro eta zerbitzu guztien kudeaketaren eta funtzionamenduaren gaineko kontrolak eta auditoriak egiteko. Horrela, araudia betetzen dutela eta eskatutako kalitate-neurriak aplikatzen dituztela bermatu ahal izanen da.

4. 2006ko aurrekontuak betetzeari dagokionez, aurkeztutako kontuek era egokian islatzen dituzte, oro har, ekitaldiaren zuzeneko eta zeharkako gastuak, kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -arau aplikagarri jarraituz. Dena dela, kontabilitate-sistema berri bat garatzeko ahalegina egin behar da, odol-ematearen eta CTSNren kostuak eta sarrerak ezagutzeko balioko duena, guztizkoak zein prozesu bakoitzarenak.

5. CTSNren kudeaketak eta jarduera ekonomiko-finantzarioek errespetatu egiten dute, oro har, legezketasun-printzipioa. Hala ere, neurriak hartu

behar dira datu pertsonalak eta kontratazio publiko datuak babesteari buruz indarreko legeriak dioena betetzeko, txosten honetan zehar adierazitakoari jarraikiz”.

Ondorio horiekin batera, guztira, 56 gomendio eman ziren, zentro horren kudeaketa hobetzeko. Gomendio horiek aurreko alderdiak garatzen dituzte.

III. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Parlamentuaren eskariaren arabera, lan honekin honako helburua bilatzen dugu:

Egiaztatzea noraino bete diren Comptos Ganbera honek 2008ko azaroko fiskalizazio txostenean eman zituen gomendioak.

Lana Espainiako Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz gauzatu da, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun prozedura tekniko guztiak bildu dira.

Lana egin da lehenengo jarraipen txosten honetan, eta parlamentu-eskariaren denboramuga ikusita –bost urtez, jarraian–, galdetegi bat bidaliz zentroko arduradunei eta erantzunak aztertuz eta agiri bidez egiaztatuz. Teknika hori erabili da zeren eta jo baitugu fiskalizazio-txostena eman zenetik –2008ko azaroko– eta azterketa lana egin zenetik –2010eko maiatza– iragan den denbora behar bezain luzea zela ikuskapenerako bestelako prozedura batzuk une hauetan aplikatu ahal izateko.

Igorritako galdetegian, horrenbestez, fiskalizazio txosten horren gomendio guztiak ageri ziren –guztira, 56 gomendio–, arloka antolatuz, 1. eranskinean jaso bezala.

IV. ONDORIOAK

Egindako lanaren norainokoa eta metodologia ikusita, honako ondorioak atera dira:

1. Guztira, ganbera honek 2008an egindako fiskalizazio txostenean sarturiko 51 gomendio ezartze-fasean daude, aplikatze-maila ezberdinetan. Betetze-maila hori arrazoizkoa dela jotzen da, ikusita kudeaketa-gomendioak ezartzeak zenbateko epea eskatzen duen. Ondorio horietarako, honakoak azpimarratu behar ditugu, daukaten eragin berezia dela eta:

- 2009ko urrian, Nafarroako Hemoterapia Plana onetsi zen. Gure ustez, plan hori funtsezkoa

da jarduera horiek modu egokian kudeatzeko, baina eskatzen du, halaber, arrazoizko denbortarte bat edukitzea hura modu eragingarrian aplikatu ahal izateko. Alabaina, planean 2010erako ezarritako helburuen gaineko jarraipenaren lehenengo aurrerapenak erakusten du helburu horiek egoki bete direla.

- Aurrera egiten ari gara lan giroa hobetzeko, lanpostuetan egonkortasuna lortzeko –lehiaketara aurkeztutako lanpostu huts guztietarako deialdia egin da– eta langileen prestakuntzan; horrek bidea emanen du aurreko fiskalizazio txostenean deskribatutako egoera gainditzeko.

- Ezarritako kalitate-sistemak lanpostu bakoitzaren funtzioak eta zereginak definitzen ditu, eta hemoterapia-sare osoan ezartzen ari da.

- Zentroari kudeaketarako teknikari bat atxiki zaio eta hura, besteak beste, garatzen ari da odol ematearen kostuei buruzko programa bat eta aginte integraleko koadro bat.

- CTSNn eta hemoterapiako sarearen gainerakoan amaitzen ari da E-Delphyn informazio- eta kudeaketa-sistema integralaren ezarpena.

- Stocken kudeaketa eta ospitale-sareko zentroekiko harremanak hobetu dira.

- Aldizkako ebaluazioak egin dira odol ematearen gogobetetze-mailari buruz, eta emaitza positibo argiak lortu dira.

Aurreko kontuez gainera, komeni da nabarmentzea 2009an odola emateko instalazioak erreformatu direla, haien funtzionamendua eta ematearen erosotasuna hobetzeko.

Laburbilduz, atzeman dugu zentroko arduradunek ahalegin nabarmena egin dutela zentroari barne funtzionamendu egokiagoa eta integratzaileagoa emateko eta ematearen eta gainerako erabilzaileen ekintzak errazteko.

Ahalegin horren barruan, 2. eranskinean, erakunde batzuek azken urteetan CTSNari buruz egin dituzten berrikuspen eta auditoriak jasotzen dira, eta bereziki nabarmentzen da haren kudeaketa-sistemaren ziurtagiria, ISO 9001 arauaren arabera.

2. Ez da hasi ondokoei buruzko bost gomendioen ezarpena:

- Langileak. Ez dira ezarri emaitzen arabera helburuak, eta ez dira langileak helburuak betetzeari arabera ebaluatu. Hala eta guztiz ere, Comptos Ganberak uste du ekintza horiek Foru Komunitateko Administrazio osoko langileen kudeaketaren erreforma-prozesu batean sartu behar direla.

- Prozesuak. Amaierako produktuaren gaineko kontrol bakteriologiko bat egiten da, Transfusioak Kreditatzeko Batzordeak erabilitako irizpide teknikoaren arabera.

- Laborategia eta analisisa. Histokonpatibilitate eta Biologia Molekularreko arloa definitu da eta 2010etik emaileentzako determinazioak baizik ez dira egiten; gainerakoak Nafarroako Ospitaleguneko unitate batean eginen dira, nahiz eta oraindik ere emaileen determinazio horien emaitzak E-Delphyn aplikazioan sartzeko zain egon.

CTSNren eskumen-esparrua gaindituta, oraindik ere ez dira ondorengo gomendioak aplikatzen:

- Nafarroako Foru Komunitaterako “zelulen eta ehunen” banku baten eginkizunak zentralizatuko dituen organismo edo zerbitzua sortzea⁽¹⁾. Horri

dagokionez, Hemoterapia Planean ehunak biltzeko gordailuei buruz eta haiek CTSNan zentralizatzeko jarduera zehatzei buruz aurreikusitako azter-lana egin da.

- Adona elkartearekin lotutako odol emateei buruzko kontusailak ez dira sartu zentroko aurrekontuan. Kontusail horiek oraindik ere Osasun Departamentuari atxikita daude eta berak kudeatzen ditu.

Ignacio Cabeza del Salvador auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako iza-pideak bete ondoren.

Iruñean, 2010eko urriaren 25ean

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

(1) 2010eko irailaren 15ean, Nafarroako Parlamentuak onetsi du Nafarroako Odol eta Ehun Bankua sortzeko Foru Lege proposamena izapidetzea.

1. ERANSKINA NAFARROAKO ODOL TRANSFUSIORAKO ZENTROARI IGORRITAKO GALDETEGIA

Gomendioaren testua	Zk.	Galdeketa
Plangintza eta programazioa.		Plangintza eta programazioa
Hainbat urterako hemoterapia plan bat onestea eta garatzea, honetarako: ebaluatu eta kuantifikatutako premiei erantzun; urtez urteko eta epe laburreko helburuak finkatu; horiek gauzatzeko arduradunak izendatu; lehentasunen eta arrazoizko baliabideen arabera baliabideak esleitu; eta kontrol- eta jarraipen-mekanismoak ezarri, neurri zuzentzaile egokiak hartzea eta horiek ebaluatzea bermatuko dutenak.	1	Onetsi eta garatu al da hemoterapia plan bat?
Langileria.		
Antolatze-egitura erraztea eta argitzea.	2	Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroaren antolamendu-egitura.
Argi eta modu gaurkotuan zehaztea lanpostu bakoitzaren funtzioak eta zereginak, eskumenak, erantzukizunak, betekizunak, ordezkapenak eta profila.	3	Lanpostu bakoitzaren funtzioak eta zereginak zehaztu al dira?
Arloz arloko plantilla zehaztea, lanpostu bakoitzaren premiak eta lan-kargak ebaluatuz.	4.1	Arloz arloko plantilla zehaztu al da?
Lanpostuetan lortu nahi diren emaitzei, mugikortasunari eta behin-behinekotasunari dagozkien helburuak finkatzea.	4.2	Lanpostu bakoitzaren premiak eta lan-kargak ebaluatu al dira?
Prestakuntzaren bidez langileen balioaniztasuna indartzea.	5	Lanpostuetan lortu nahi diren emaitzei, mugikortasunari eta behin-behinekotasunari dagozkien helburuak finkatu al dira?
Informazio- eta komunikazio-bide normalak garatzea langile guztien artean.	6	Zein prestakuntza plan egingen dira langileen balioaniztasuna indartzeko?
Informazio- eta komunikazio-bide normalak garatzea langile guztien artean.	7.1	Langile guztien artean informazio- eta komunikazio-bideak ezarri al dira?
Planei eta antolakuntzari buruzko informazio gaurkotua langile guztien eskura dagoela ziurtatzea, erraz eta zuzenean eskuratzeko moduan.	7.2	Langile guztien arteko bilerak egiten al dira aldizka eta modu programatuan?
Planei eta antolakuntzari buruzko informazio gaurkotua langile guztien eskura dagoela ziurtatzea, erraz eta zuzenean eskuratzeko moduan.	8	Ba al dute langileek zentroko planei eta antolaketari buruzko informazio guztirako zuzeneko sarbidea?

Langileei parte harraraztea plana eta aurrekontuak egiten, kalitatearen kudeaketan eta prestakuntza planetan.	9	Kontuan hartzen al dira langileen iritzi/iradokizunak prestakuntza planak egiteko?
Idazkiak/salaketak tratatzeko bideak/protokoloak garatzea, interes orokorrak hobeto babesturik egon daitezen eta tratu egokia eman dakien gertaeren berri ematen duten langileei.	10	Neurriren bat hartu al da arauetan huts-egite gisa tipifikaturik ageri ez diren langileen egoerei konponbidea emateko?
Langileen egungo egoera konpontzeko beharrezko neurriak hartzea, batetik Zentroak ongi funtziona dezan eta, bestetik, langile guztien eskubideak eta betebeharrak errespetatu daitezen.	11	Zein neurri hartu dira langileen egoerari konponbidea emateko eta zentroak ongi funtziona dezan?
Langile guztien ebaluazioa egitea, lortutako helburuak eta lan-ibilbidea kontuan hartuta.	12	Langile guztiak ebaluatu al dira lortutako helburuen arabera?
Kalitatearen kudeaketan ezinbestekoa da langileak animatzea eta motibatzea, langile bakoitzaren meritua eta konpromisoa balioestea eta garapen pertsonala eta profesionala aitortzea.	13	Langileak estimulatu eta baloratzeko neurriren bat hartu al da?
Odol-ematearen kostuak		
Kalitate-kudeaketaren barruan, antolakuntza-, informazio- eta kontabilitate-tresnak garatzea, organigramaren guztizko kostuak identifikatu eta zenbatu ahal izateko, bai eta zentro/lan-alor bakoitzeko nahiz prozesu bakoitzeko kostuak ere.	14	Antolamenduko, informazioko eta kontabilitateko tresnak garatu al dira guztizko kostuak eta lan-arlo bakoitzeko eta lan prozesu bakoitzeko kostuak identifikatu eta zenbatzeko?
Finantzen, kudeaketaren eta prozesuen informazioa "aginte-koadro integral" batean sintetizatu beharko litzateke, helburuen arabera lan egiteko, eta programazio-, kontrol- eta ebaluazio-tresna gisa balio izateko.	15	"Aginte-koadro integral" bat ezarri al da?
Finantzen eta aurrekontuaren kudeaketa		
Beharrezko egonkortasuna ziurtatzea kudeaketaz arduratzen diren postuetan.	16	Lanpostu horietan nolabaiteko egonkortasuna lortu al da?
Ekipo batzuek gaizki funtzionatzeko arrazoiak aztertzea eta, hala balegokio, neurriak hartzea.	17	Ekipoak analizatu eta kontrolatzeko neurriak hartu al dira?
Ekipo-inbertsioak eta -eskuratzeak programatzea detektatutako premien arabera, aldez aurretik eta behar beste denboraz.	18	Zein azterlan egiten dira inbertsioen aurretik eta ekipoak erosi aurretik?
Jasotako zerbitzuak eta hornidurak ordaindu eta bermea itzuli aurretik, lege-betekizunak eta kontratu-klausulak errespetatu direla ziurtatzea.	19	Kontratuetako klausulak eta lege-baldintzak errespetatzen al dira zerbitzuak eta hornidurak ordaintzen hasi aurretik eta bermea itzuli aurretik?
Kontratu berriak legeak eta prozedurak errespetatuz luzatzen edo esleitzen direla kontrolatzea.	20	Kontratuetan edo luzapenetan ezarritako epeak eta prozedurak errespetatzen al dira?
Espedienteak beharrezko egiaztagiriekin berrikustea eta osatzea.	21	Espedienteak beharrezko egiaztagiriekin berrikusi eta osatu al dira?

CTSNko ekipamendu-ondasunen eta inbertsioen inbentario osoa, berrikusia eta gaurkotua eramatea.	22	Ekipamendu-ondasunen eta inbertsioen inbentarioa osatu eta gaurkotu al da?
Emandako produktuen eta zerbitzuen finantza-kudeaketako eta kobrantzako prozedurak garatzea, homogeneizatzea eta kalitatea kudeatzeko sistema sartzea, bai eta informazio-sistema orokorretan integratzea ere, erabilera bereziko sistemak ugaritu ez daitezen.	23	Kalitatea kudeatzeko sistema sartu al dira finantza-kudeaketako eta produktu- nahiz zerbitzu-kobrantzako prozedurak eta, halaber, informazio-sistema orokorretan integratu al dira?
Eskaeren, albaranen, fakturazioaren eta kobrantzaren datuak aldizka bateratzea.	24.1	Eskaeren, albaranen, fakturazioaren eta kobrantzaren datuak bateratzen al dira?
	24.2	Zer maiztasunez?
Adona		
Koordinazio indartzea eta Adonarekin nahitazeko lankidetzak bermatzea (hemoterapiako plana garatzea eta hartan sustapena integratzea, ADONAREkin koordinazio estuan).	25	Adonarekin batera eginiko ekintzak, odol ematea sustatzeko.
Herritarrek odol emateko jardueran eta parte-hartzean duten eboluzioa aztertzea eta baloratzea.	26	Herritarrek odol emateko jardueran parte hartzeari buruzko adierazleak aztertu eta baloratzea.
Foru Komunitatean, odol-emateari buruzko aldizkako gogobetetze-ebaluazioak egitea emaile eta erabiltzaileei.	27	Foru Komunitatean, odol-emateari buruzko aldizkako gogobetetze-ebaluazioak egin al zaizkie emaile eta erabiltzaileei?
Sustapen-jarduereko aurrekontu-kontusailak CTSNk kudeatzeko aukera aztertzea, bere eskumen eta erantzukizun zuzenen barruan, bai eta ADONAREkiko hitzarmena koordinatzeko eta jarraitzeko aukera ere, elkartek borondatezko odol-ematearen alorrean bere jarduerak egiteko behar adinako finantziak eduki dezan.	28	CTSNren aurrekontu-kontusailetan sartu al dira odol ematea sustatzeko kontusailak?
Hala balegokio, dirulaguntzen finantza-kontrola sartzea Kontuhartzaileta Nagusiaren auditoria- eta kontrol-programa berrian.	29	Kontu-hartzailetza Nagusiak diru-laguntzen kontrola sartu eta egin al du? (Adona)
Bere helburuetarako behar duen informazioa elkarteari ematea, betiere ziurtatuz fixategietako datu pertsonalak babesten direla, automatizatuak nahiz eskuzkoak.	30.1	Nola ematen zaio elkarteari datu pertsonalen gaineko informazioa?
	30.2	Zer neurri hartu dira fixategietan jasotako datuak Adonari emateko, datuen babesa dela-eta dauden betebeharrak betetze aldera?

Prozesuak.	Prozesuak
<p>Ekintza zuzentzaileak bultzatzea komeni da, bai eta hartutako neurriak dokumentatzeko, jarraitzeko eta ebaluatzeko mekanismoak garatzea ere, besteak beste Aginte Koadro Integrala. Aurreikusitako eta egindako helburuen artean dauden ohar, intzidentzia eta desbideratze guztiak aztertu eta eztabaidatu behar dituzte horietan inplikaturako langileek, eta arrazoiak ikertu behar dira. Azterketaren ondoren, Zuzendaritzak eta arduradunek neurri zuzentzaileak hartu, eta ziurtatuko dute aplikatzen direla eta ondoren beren eragina ebaluatzen dela, epe erabilgarrietan.</p>	<p>31.1 Atzemandako desbideratzeak aztertzen al dira? Batezkoan, norik aztertzen ditu?</p> <p>31.2 Behar diren neurri zuzentzaileak hartzen al dira?</p>
<p>Oharrik eta intzidentziak tratatzeko prozesua informatizatzea komeni da, eta bertan agertzea horien deskripzioak, neurri zuzentzaileak, jarraipena eta ebaluazioa. Erregistro eta trataera hori egiteko, agian informazioa kudeatzeko "E-delphyn" sistema berria ezarri eta garatu beharko litzateke.</p>	<p>32.1 Informatizatu al da oharrik eta intzidentziak tratatzeko prozesua, bertan agertuz horien deskripzioak, neurri zuzentzaileak, jarraipena eta ebaluazioa?</p> <p>32.2 Haien erregistroa eta tratamendua informatizatu al da E-Delphyn sistema informatikoan?</p>
<p>Iraungitze-data gainditu duten laborategiko produktuak erretiratzea.</p>	<p>33 Iraungitze-data gainditu duten laborategiko produktuak kontrolatzeko prozeduraren bat ezarri al da?</p>
<p>Odol-osagaien kalitate-neurketen laginak eta laginketa-maiztasunak kontrol estatistikoko baten bidez egitea, eta horien trazabilitatea gordetzea.</p>	<p>34.1 Laginen kontrol estatistikoren bat ba aldago, odol-osagaien kalitate-neurketa guztietarako?</p> <p>34.2 Egindako laginen trazabilitatea gordetzen al da?</p>
<p>Kontrol bakteriologiko egokia odola ateratzeko prozesuetan.</p>	<p>35 Odola ateratzeko prozesuetan, kontrol bakteriologikoren bat ezarri al da?</p>
<p>Zerrendak, prozedura-fixak eta jarraibide teknikoak gaurkoturik egotea eta prozedurak eta epeak jarraitzea ekipoak, aparatuak eta aplikazio informatikoak berrikusteko eta baliozkotzeko orduan, analisirako erabili aurretik.</p>	<p>36.1 Ekipo eta aparatuen zerrendak, prozedura-fixak eta jarraibide teknikoak gaurkotzen al dira?</p> <p>36.2 Ekipoak eta aparatuak berrikusteko eta baliozkotzeko prozedurak eta epeak jarraitzen al dira?</p> <p>36.3 Eta aplikazio informatikoenak?</p>
<p>Tuteratik datozen garraioetan kontrolatzea muga onargarrien barruan mantentzen dela temperatura.</p>	<p>37 Tuteratik datozen garraioetan tenperaturaren kontrola erregistratzen al da?</p>
<p>Serologiaren ordeztzea DNA teknika erabiltzeko aukera aztertzea, sistema automatizatua erabili daitezkeeneko emaille-tipifikazio kasuetan.</p>	<p>38 Erabakiren bat hartu al da serologiaren ordeztzea DNA teknika erabiltzeko aukera aztertzeko, sistema automatizatua erabili daitezkeeneko emaille-tipifikazio kasuetan?</p>

Produktu akasduengatik egindako erreklamazioak ospitale batetik bestera zergatik aldatzen diren ikertzea komeni litzateke.	39.1	Analisiren bat egin al da ospitale-zentroek produktu akasduengatik egindako erreklamazioei buruz?
Honako adierazle hauek gainditu egin dituzte aurreikusitako helburuak: "unitate mugikorrean eskegitako odol-bilketak", "ohar medikoak", "prozesaketan lortutako produktu ezadosak" eta "emaileen erreklamazio-kopuruak".	39.2	Zein izan da azken hiru urte hauetako errefusuen joera?
2008 arte erabilitako sistema informatikoarekin ezin da informazio lortu stock historikoez, beren eboluzioaz eta gertatutako etenez.	40	Aurreikusitako helburuei dagokienez, adierazleetako batzuk gainditu al dira? Zein dira?
Odol-produktu batzuen faltari dagokionez, 2008ko urtarrilaren 16an eta 17an, CTSNk eta Nafarroako Hemoterapia Sareko ospitaleek, emandako datuen arabera, behar hainbat stock zeukaten, baina CTSNren mailak ez ziren iristen murrizketak eragin zituzten bi produktuen minimo gomendatuetara. Arrazoi bat izanen litzateke CTSNk denbora errealean informazioirik ez edukitzea sareko ospitale guztien stockei buruz.	41	Sistema informatiko berriak aukera ematen al du stock historikoei, beren eboluzioari eta gertatutako etenei buruzko informazioa lortzeko?
Produktuen inbentarioaren eta banaketaren erregistro egokiak eramatea. Premiak aurreikusitako, ospitaleko eskaera normalak idatziz eta/edo faxez kudeatzeko, eta produktuak banatzeko prozedurak errespetatzen direla kontrolatzea.	42.1	CTSNk ba al du informazioirik, denbora errealean, sare publikoko ospitale guztien stockei buruz?
Baliabideak eta prozedurak hobetzea, eta horrela era errealean kontrolatzea stocken eboluzioa -sare osoko sarrerak eta irteerak-, stock horiek gaurkotzea, aztertzea eta konparatzea hurrengo lau egunetarako aurreikuspenekin (bizpahiru eguneko premia larriak estaltzeko behar den denbora normala) eta jasotako eskaera guztiekin, eta beharrezko neurriak hartzea etenik egon ez dadin gomendatutako eta segurtasuneko stock minimoetan.	42.2	Uneren batean, gertatu ote da odol produktu batzuk falta izatea eta ospitaleen eskakizunei ezin aurrea hartzea?
Nafarroako Hemoterapia Sareko ospitaleekin lankidetze-akordioak indartzea eta komunikazio-sistema informatizatua ezartzea, informazioa denbora errealean edukitzeko, gerta ez dadin ospitale batek produktu batekin hornidura-problema edukitzea, eta beste batek soberakinak.	43	Sare osoko sarrerekin eta irteerekin stocken eboluzioa denbora errealean kontrolatzeko prozeduraren bat ezarri al da?
Stockak kudeatzeko sistema integratuak era automatikoa eta trazagarria ohartarazi beharko litzuke arduradunak, mailak aurrez ezarritako segurtasun-mailaren batera iristen ari diren bakoitzean.	44	Komunikazio-sistema informatizatua ezarri al da Nafarroako ospitale guztiek informazioa denbora errealean edukitzeko?
	45	Stockak kudeatzeko sistemak era automatikoa ohartarazten al die arduradunei stock-mailak segurtasun-mailaren batera iristen direnean?

Prestakuntza.	Prestakuntza.
<p>Langileek hasierako eta etengabeko prestakuntza egokia eta aholkularitza jaso behar dute, behar adinako kalitatez egin dituzten beren lanak. Gaitasun- eta kalitate-baldintza horiek betetzeak langile guztiei eragiten die eta kezkatzen ditu, etengabeak baitira zerbitzuaren teknologia-, antolakuntza- eta prozedura-aldaketak, eta handiak baitira langileen absentismoaren eta txandakatzeen indizeak, txosten honetan agertzen denez.</p>	<p>46 CTSNko langileentzat 2009an zehar garatu diren prestakuntza jarraituko programak.</p>
<p>Prestakuntza-programek langile guztien premiak asetzen; hau da, alor bakoitzean jardunbide egokiak eskaintzea eta langileei prestakuntza-denbora minimo bat eskatzea. Helburu nagusizat hartu behar litzateke langile guztiak prestatzea eta kontzientziaztea, bai kalitatean, bai balioaniztasunean, bai teknologia berrien ezagutzan.</p>	<p>47.1 Ezarritako prestakuntza-programek, langileen premia guztiak asetzen al dituzte?</p> <p>47.2 Lehenetsuna eman al zaio langileentzako teknologia berriei buruzko prestakuntzari?</p>
<p>Langileen gaitasuna eta jasotako prestakuntzaren eraginkortasuna aldizka ebaluatzea, eta ebaluazioari buruzko langileen akordioa formalki dokumentatzea. Gertuko buruzagiek eta arduradunek langile bakoitzarekin aztertu eta ebaluatu behar litzateke premiak, programa bete den eta emandako prestakuntza eraginkorra den, prestakuntza-ekintzak premietara eta lehenetsunetara adosteko eta moldatzeko.</p>	<p>48 Jasotako prestakuntzaren eraginkortasunari buruzko ebaluazioak egiten al dira?</p>
Laborategia eta analisis	Laborategia eta analisis
<p>CTSNko laborategiak osasun-laborategi guztiekiko duen egoera aztertuz sektorea antolatzea, Nafarroako laborategiko kudeaketaren eta jardueren koordinazioa indartzea, eta gaixoei buruzko informazioa integratzea. Antolaketa horrek argitu egingen litzuzke CTSNko laborategiaren etorkizuna, egitekoak eta alorrak.</p>	<p>49 CTSNren laborategiaren egungo egoera, laborategi publiko batzuk batera bildu ondoren. "HLA" alorraren egoera.</p>
<p>Laborategiak eta HLA alorrak urte osoan zehar behar hainbat langile kualifikatu (erabilitako teknikerako behar den esperientzia eta prestakuntza dutenak) dituela ziurtatzea, langileek egonkortasun onargarri bat edukitzea, eta laborategiaren funtzionamendu egokirako beharrezkoa den prestakuntza eta balioaniztasuna bermatzea.</p>	<p>50 Neurririk hartu al da laborategian esperientzia duten behar hainbat langile edukitze aldera, egoki funtziona dezan bermatzeko?</p>
<p>Beharrezko neurriak hartzea harreman pertsonalak hobetzeko eta, betiere, harreman horiek jardueren kudeaketa ona eragozten ez dutela ziurtatzea.</p>	<p>51 Neurririk hartu al da laborategiaren arloko harreman pertsonalak hobetzeko?</p>
<p>Transfusio Zentroko Laborategiari beharrezko baliabide teknikoak ematea, eraginkortasun-irizpideei jarraituz.</p>	<p>52 Beharrezko baliabide teknikoak eman al zaizkio laborategiari?</p>
<p>Odol-emaileen HLA analisisien eta azterketen informazioa E-Delphyn aplikazio berrian sartzeko aukera aztertzea. Era horretan, nabariagoa izan da HLAREN integrazioa CTSN-n.</p>	<p>53 HLA analisisien eta azterketen emaitzei buruzko informazioa sartu al da E-Delphyn aplikazioan?</p>

Informazio eta kudeaketa sistemak.	Informazio eta kudeaketa sistemak
<p>Informazio-sistema berriak bere barruan eraman beharko lituzke Hemoterapia Sareko zerbitzuen eta mekanismoen arteko prozesuak eta harremanak, eraginkorragoa izan dadin. E-Delphyn sistema berriaren honako hauek sartu eta integra daitezela: 1) Intzidentzia-parteen erregistroa eta jarraipena, 2) Emaileei buruzko HLA laborategiko datuak eta emaitzak. 3) Nafarroako Hemoterapia Sare osoko stocken kudeaketa. 4) Ospitaleetako prozesuak, era horretan errazagoak izan daitezen premien programazioa, stocken kudeaketa eta trazabilitatea. 5) Fakturazioaren eta kobrantzaren kudeaketa.</p>	<p>54.1 E-Delphyn sistema lanean jarri al da?</p>
<p>54.2 Prozesuan sartu al dira hemoterapia sareko zerbitzu eta erakundeak?</p>	<p>54.2 Prozesuan sartu al dira hemoterapia sareko zerbitzu eta erakundeak?</p>
<p>54.3 Sistemak jasotzen al ditu intzidentziak?</p>	<p>54.3 Sistemak jasotzen al ditu intzidentziak?</p>
<p>54.4 Sistemak emaileen "HLA" laborategiko datuak eta emaitzak jasotzen al ditu?</p>	<p>54.4 Sistemak emaileen "HLA" laborategiko datuak eta emaitzak jasotzen al ditu?</p>
<p>54.5 Hemoterapia Sare osoko stocken kudeaketa biltzen al du?</p>	<p>54.5 Hemoterapia Sare osoko stocken kudeaketa biltzen al du?</p>
<p>54.6 Premien programazioa, stocken kudeaketa eta trazabilitatea errazagoak egiten al ditu?</p>	<p>54.6 Premien programazioa, stocken kudeaketa eta trazabilitatea errazagoak egiten al ditu?</p>
<p>54.7 Fakturazioaren eta kobrantzaren kudeaketa errazten al du?</p>	<p>54.7 Fakturazioaren eta kobrantzaren kudeaketa errazten al du?</p>
<p>Kontrol-neurriak eta auditoriak.</p>	<p>Kontrol-neurriak eta auditoriak</p>
<p>Osasun-agintariak ikuskatze- eta kontrol-neurriak ezarri behar dituzte, odola ematen, prozesatzen eta transfusioak egiten aritzen diren ospitale eta zerbitzu guztiek bete ditzaten nahitazko kalitate-arauak eta -betekizunak.</p>	<p>55 Ikuskatze- eta kontrol-neurriak ezarri al dira nahitazko kalitate-arauak eta -betekizunak bete daitezen?</p>
<p>Osasun-agintariak eskualdeko plan bat abiarazi behar dute, Hemoterapia Sareko zentro guztien kudeaketari eta funtzionamenduari buruz kontrolak eta auditoriak egiteko, horrela arauak errespetatu eta kalitate-irizpideak aplika ditzaten, bai eta neurri zuzentzaileak ere, beharra balego. Kontrolak eta ikuskatzeak bi urtez behin baino maizago egin behar dituzte horretarako gaituta dauden langileek, eta, besteak beste, laginak hartu, aztertu eta analizatu egin behar dituzte.</p>	<p>56 Eskualdeko plan bat abiarazi al da, Hemoterapia Sareko zentro guztien kudeaketari eta funtzionamenduari buruz kontrolak eta auditoriak egiteko, arauak errespetatu eta kalitate-irizpideak aplika daitezten, bai eta neurri zuzentzaileak ere, beharra balego?</p>

2. ERANSKINA CTSNREN GAINEAN ERAKUNDE BATZUEK EGINIKO AZTERKETA EDO/ETA AUDITORIAK

CTSNk igorritako informazioaren arabera, azken urte hauetan, zenbait azterketa eta auditoria egiten ari dira, zeinetatik honakoak azpimarratu behar baititugu:

1. Osasun Departamentuaren izenean

Transfusio Zentroaren eta Odola Ateratzeko Unitate Mugikorraren eta Tuterako Odola Ateratzeko Unitatearen kokapen berriaren baimen administratiboa eta lehenengo ikuskapena baliozkotzea, Odola ematearen eta transfusio-zentroen eta zerbitzuen gutxieneko betekizun teknikoak eta baldintzak ezartzen dituen 1088/2005 Errege Dekretuari jarraituz, 2007an eta 2009an, hurrenez hurren.

- Osasun zuzendari nagusiaren maiatzaren 15eko 864/2007 Ebazpena, "Nafarroako Odol Transfusioko Zentroaren" funtzionamendurako baimen administratiboa baliozkotzen duena.

- Osasun zuzendari nagusiaren maiatzaren 17ko 883/2007 Ebazpena, Iruñeko Irunlarrea z.g. kalean dagoen "Nafarroako Odol Transfusioko Zentroko Odola Ateratzeko Unitate Mugikorra" osasun laguntzako zentro mugikorraren funtzionamendurako baimen administratiboa baliozkotzen duena.

- Osasun zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 2400/2009 Ebazpena, Tuterako Eza kaleko 2. zenbakian dagoen "Tuteran dagoen Nafarroako Odol Transfusioko Zentroaren Odola Ateratzeko Unitatea" osasun zentroaren funtzionamendurako baimen administratiboa ematen duena.

- Azkeneko biurteroko ikuskatzea 2009ko ekainean egin da, irailaren 16ko 1088/2005 Errege Dekretuari jarraituz. Izan ere, haren bidez ezartzen dira odola emateko eta transfusio-zentro eta zerbitzuetako betekizun teknikoak eta gutxieneko baldintzak; otsailaren 9ko SCO/322/2007 Aginduak, berriz, trazabilitatearen eta odolaren eta odol-osagaien erreakzioak eta eragin kaltegarri larriak jakinarazteko betekizunak ezarri zituen; eta urriaren 11ko 1343/2007 Errege Dekretuak transfusioko zentro eta zerbitzuen kalitate sistemari buruzko arauak eta zehaztapenak ezarri zituen.

2. AENOR-ek kalitate-kudeaketari buruzko sistemaren ziurtagiria ematea, ISO 9001 arauaren arabera:

- Ziurtagiriaren data: 2006ko uztailaren 21a.
- Berritzearen data: 2009ko uztailaren 21a.
- Amaiera-data: 2012ko uztailaren 21a.

2010eko irailean egin da kalitatea kudeatzeko sistemaren jarraipenaren 1. auditoria, eta ondorioztatu da ezen "aztertutako sistema egokia dela erreferentziako arauaren eta antolamenduko bezeroen betekizunak betetzeko, eta jotzen da eraginkorra dela eta etengabeko hobekuntza bilatzen duela. Horixe erakusten dute erakundea sarturik dagoen plan ugari, kudeaketa orokorki hobetu nahi dutenak, alderdi ekonomikoetatik nahiz transfusio zentroen eta emaileen gogobetetzea hobetzeko alderdietatik, prozesuen eraginkortasunaren alderditik eta abarretatik ere." Ez da atzeman auditoria honetan "adostasun ezik" dagoenik.

CTSNren kudeaketaren gune indartsu gisa, honakoak aipatzen ditu txostenak:

– Pertsona/lanpostua ebaluazioak egitea (jakintzen panela), lanean hobeki jarduteko hasiera gisa.

– Azterlan eta adierazle ugari (sistemaren eraginkortasuna neurtzeko definitutakoez haratago), zeinak hasierako elementu garrantzitsu bat baitira ekintza-planak ezarriko dituzten aldizkako analisiak egiteko edo egunero erabakiak hartzeko.

– Sektorean ohikoak ez diren tresnak erabiltzea eta terminoak onartzea; esate baterako, produktibitatea, etekinak, denboren gaineko azterlanak eta abar.

– Prozesuak eta adierazleak birdefinituz azken garaian eman den jauzi kualitatiboa, eta barne auditoriako metodoetarako migrazioa, departamentu edo prozesu baten egoera erreala eta alditik aldira lortutako hobekuntzak zenbatesteko (merezimendu-ezen araberako balorazioa).

– Orokorrean, antolamenduaren dinamismoa eta langileak kalitate-politikari atxikitzea."

Era berean, nabarmendu behar dugu ziurtagiriaren sartua izan dela hezur-muin emaileen erregistro-jarduera eta Tuterako unitatea.

3. Transfusioak Kreditatzeko Batzordeak 2007an emaniko ziurtagiria. Aurreikusita dago haren berritzeari buruzko auditoria 2010eko irailean amaieran egitea.

4. "European Federation For Inmunogenetis" (EFI) erakundearen ziurtagiria 2001etik.

5. Grifolsek (plasmatik eratorritako produktu farmazeutikoen hornitzailea da) bi urtez behin auditoriak egiten ditu Transfusio Zentroei buruz, zentro hornitzailean erabiltzen diren instalazioak eta prozedurak, zatikatze industrialerako giza plasma lortzeko erabiltzen direnak, bertatik bertara ikuskatzeko. Izan ere, Europako Farmakopean

(1088/2005 eta 1343/2007 Errege Dekretuetan) eta GMP eta CPMP (Committee for Proprietary Medicinal Products) zuzentaraueetan finkatutako zehaztapenak eta Grifolsek plasmari buruz ezarri-

takoak bete beharko dituzte. Azken auditoria 2008ko urrian egin zen.
